

II. GRAMATIKA

BALDINTZA V: IRREALA ETA HIPOTETIKOA (ZER-NORI-NORK)

Forma

Gogoan izan: Baldintza: *BA + iragana -(e)N gabe*

Ondorioa: *Iragana -(e)N gabe + KE*

(Hirugarren pertsona Z- → L-)

A. Baldintza

	<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiei</i>
<i>nik</i>	~	<i>BANIZU</i>	<i>BANIO</i>	~	<i>BANIZUE</i>	<i>BANIE</i>
<i>zuk</i>	<i>BAZENIT</i>	~	<i>BAZENIO</i>	<i>BAZENIGU</i>	~	<i>BAZENIE</i>
<i>hark</i>	<i>BALIT</i>	<i>BALIZU</i>	<i>BALIO</i>	<i>BALIGU</i>	<i>BALIZUE</i>	<i>BALIE</i>
<i>guk</i>	~	<i>BAGENIZU</i>	<i>BAGENIO</i>	~	<i>BAGENIZUE</i>	<i>BAGENIE</i>
<i>zuek</i>	<i>BAZENIDATE</i>	~	<i>BAZENIOTE</i>	<i>BAZENIGUTE</i>	~	<i>BAZENIETE</i>
<i>haiak</i>	<i>BALIDATE</i>	<i>BALIZUTE</i>	<i>BALIOTE</i>	<i>BALIGUTE</i>	<i>BALIZUETE</i>	<i>BALIETE</i>

Objektu plurala: *BANIZKI*O, *BAZENIZKI*O, *BALIZKI*O...

B. Ondorioa

	<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiei</i>
<i>nik</i>	~	<i>NIZUKE</i>	<i>NIOKE</i>	~	<i>NIZUEKE</i>	<i>NIEKE</i>
<i>zuk</i>	<i>ZENIDAKE</i>	~	<i>ZENIOKE</i>	<i>ZENIGUKE</i>	~	<i>ZENIEKE</i>
<i>hark</i>	<i>LIDAKE</i>	<i>LIZUKE</i>	<i>LIOKE</i>	<i>LIGUKE</i>	<i>LIZUEKE</i>	<i>LIEKE</i>
<i>guk</i>	~	<i>GENIZUKE</i>	<i>GENIOKE</i>	~	<i>GENIZUEKE</i>	<i>GENIEKE</i>
<i>zuek</i>	<i>ZENIDAKETE</i>	~	<i>ZENIOKETE</i>	<i>ZENIGUKETE</i>	~	<i>ZENIEKETE</i>
<i>haiak</i>	<i>LIDAKETE</i>	<i>LIZUKETE</i>	<i>LIOKETE</i>	<i>LIGUKETE</i>	<i>LIZUEKETE</i>	<i>LIEKETE</i>

Objektu plurala: *NIZKI*KE, *ZENIZKI*KE, *LIZKI*KE...

Erabilera

Baldintza irrealia: *PARTIZIPIO (izan) + BANU,*

-KO ZUEN (orduan)

-KO LUKE (orain-gero)

Baldintza hipotetikoa:

BANU

-KO LUKE

-KO BANU

Adibidez:



Lagundu bazenio, eskertuko zizun.

(si le hubieras ayudado, te lo habría agradecido)

Lagundu bazenio, eskertuko lizuke.


(si le hubieras ayudado, te lo agradecería)

Gehiago baleuka, gehiago emango lizuke.

(si tuviera más, te daría más)

Gehiago eskatuko bazenio, gehiago emango lizuke.

(si le pidieras más, te daría más)



ARIKETAK

1. AUKERATU

1. Egia , ez zidaten sinetsiko.
• esan nien • esan balidate • esan banie • esango banie
2. Egia , ez lidakete sinetsiko.
• esan nien • esan balidate • esan banie • esango banie
3. Horren berandu ez balitz, bisita.
• egin nion • egin banio • egingo nion • egingo nioke
4. Horren berandu izan ez balitz, bisita.
• egin nion • egin banio • egingo nion • egingo nioke
5. Oso jatorra da; , berehala etorriko zen.
• deitu bazenio • deituko bazenio • deituko zenioke • deitu zenion
6. Zuretzako moduko zerbait ikusi izan banu,
• ekarri nizun • ekarriko nizun • ekarriko nizuke • ekarri banizu
7. Zuretzako moduko zerbait ikusiko banu,
• ekarri nizun • ekarriko nizun • ekarriko nizuke • ekarri banizu
8. Nahi zenutela jakin izan banu, egunkaria.
• utziko dizuet • utziko nizuen • utziko nizueke • utzi nizuen
9. Horren serioa ez balitz, kasu
• egingo genioke • egin genion • egiten genion • egingo bagenio
10. Aizue, gauza bat , haserretuko al zinateke?
• esango nizueke • esango banizue • esan banizue • esan nizuen
11. Aitak animo pixka bat , ez litzateke gaizki izango.
• emango zion • eman zion • eman balio • emango balio
12. Atea , barrura sartuko nintateke.
• ireki bazenidate • irekiko bazenidate • irekiko zenidaten • ireki zenidaten
13. Zuek , berehala amaituko genuen lan guztia.
• lagundu bazeñigute • lagunduko bazeñigute • lagundu zeniguten • lagundu zenigukete
14. Ertzainek gelditzeko , ez al zineten geldituko?
• esango balizuete • esan zizueten • esan balizuete • esango lizuete
15. Ertzainek gelditzeko , ez al zinatekete geldituko?
• esango balizuete • esan zizueten • esan balizuete • esango lizuete

2. OSA PERPAUSAK

A. AMAITU, nahi duzun ondorioa ipiniz.

Adibidez:

Autoa utzi ez banio, **izugarri haserretuko zen.**

⇒ Autoa utziko ez banio, **etxean geratuko litzateke.**

1. a. Garaiz itzultzeko esan banio,
b. Garaiz itzultzeko esango banio,
2. a. Norbaitek lagundu izan balit,
b. Norbaitek lagunduko balit,
3. a. Atea itxi bagenie,
b. Atea itxiko bagenie,
4. a. Aitak kasu gehiago egin balio,
b. Aitak kasu gehiago egingo balio,
5. a. Suspenditu zutenei beste aukera bat eman baliote,
b. Suspenditu zutenei beste aukera bat emango baliote,
6. a. Operatu nahi zuen galdetu baliote,
b. Operatu nahi duen galdetuko baliote,
7. a. Sartzen utzi ez banizu,
b. Sartzen utziko ez banizu,
8. a. Soldadutzara deitu balizute,
b. Soldadutzara deituko balizute,
9. a. Den-dena sinetsi bagenio,
b. Den-dena sinetsiko bagenio,
10. a. Zor zenidana pagatu ez bazeñit,
b. Zor didazuna pagatuko ez bazeñit,

B. HASIERA EMAN

Adibidez:

⇒ **Deitu bazenu, irekiko nizun**

11., aitari eskatuko nioke.
12., ez genion sinetsiko.
13., edozeinek lagunduko zion.
14., ez genizuke gezurrik esango.
15., ez lizuke kalterik egingo.
16., mesede egingo lioke.
17., kasu egingo zizun.
18., ez nizuke eskatuko.
19., zorionak emango genizkion.
20., botikaren bat hartzeko aginduko zizun.

3. EUSKARATU

1. Si nos hubieras llamado, te habríamos ayudado.
2. Si quisieras, te traeríamos todos los días el periódico.
3. Si lo necesitaras, todo el mundo te ayudaría.
4. Si nos hubiera hecho caso, ahora andaría mejor.
5. Si lo hubiéramos pedido, nos habrían dado a nosotros ese trabajo.
6. Si hubieras querido, te habrían dejado entrar.
7. Si me lo hubieran dicho, se habría arreglado todo enseguida.
8. Si no hubieran tenido dinero en la cartera, no se lo habrían robado.
9. Si supiera que vas a estar en casa, te prepararía una cena especial.
10. Si hubiera sabido que te iba a hacer daño, no te lo habría dicho.

4. HUTSUNEAK BETE ONDOKO TESTUETAN

A.

Lehen laguntzetako klase teoriko batean.

MONITOREAK: Zu, Ana, haur bat ekarriko balizute sudurretik odola dariola, zer egingo zenioke?

ANAK: Lehenbizi burua atzeraka jartzeko esango; gero, horrela dagoela, aulki batean eserazikoz nuke; ondo garbituko sudur-zuloak eta zapi bat jarriko odola gelditu arte.

* * *

B.

Mikel gidatzeko karneta atera ezinik dabil. Hamar aldiz aurkeztu da eta hamarretan atzera bota dute. Kezkatua dago zeharo. Lagun batek honela esan dio:

—Ai, Mikel, Mikel, zuk ez dakizu nola diren gauzak. Azterzaileari puru-kaxa bat erregalatuko, berehala aprobatuko

—Bai? Aprobatuko uste duzu? Ez al litzateke okerrago izango? Beharbada, haserretu eta ez inoiz aprobatuko.

* * *